

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kanalen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko. Bi motatako bezeroak izanik, mota berdinetako kanalak erabili beharko ditugu:

Gure enpresa erabiliko duen kanala, elkartutako kanala izango da. Honen arabera, zeharkakoek aukera sorta zabala hartzen dute (handizkako edo txikizkako banaketa, esaterako), eta irabazi-marjina txikiagoak eskaintzen dituzten arren. Onurei dagokienez, ordea, marjina eskasagoa eskaintzen badute ere, gure kanal propioak erabiltzean baino bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen digute. Gainera, aipatutako kanal elkartuen indar komertzialari ere etekina atera ahal izango diogu. Gure enpresari dagokio, erabiliko ditugun komunikazio kanalak bezeroekin komunikatzeko Internet-a izango da, webgunearen bitartez bezeroa erabakiko du zer motatako produktuak erosi nahi duen. Gure ustez komunikazio kanal hau egokiena da bezeroak gure eskaintza ondo ezagutuko dutelako iragarkien bitartez, eta eskainiko diegun informazioaren bitartez.

Gure produktuak saltzeko bi modu erabiliko ditugu;

Alde batetik, supermerkatuetan (edota beste saltoki batzuetan) eskainiko ditugu gure produktuak, adibidez, erosketa bat egitean 50€ kopurua gainditzen denean poltsa bat oparitzen da erosketarekin batera eta edalontziak produktu bat bezala salduko dira supermerkatuetan. Eta fisikoki dugun dendan, gure bezeroak gure enpresaren hainbat produktu eskuratu ahal izango dute.

Eta beste aldetik, enpresa partikularrak erosi ahal izango dute gure produktua webgunearen bitartez eskari bat egiten. Adibidez, udaletxe bat jaialdiak direnean, gure enpresarekin kontaktuan jarriko dira gure produktuak eskatzeko, kasu honetan edalontziak, aukera on bat plastikozko edalontziak baztertzeko.

Bestalde, erabaki dugu ez izatea soilik banaketa kanala bat, horregatik pentsatu dugu posta erabiltzea gure produktuak banatzeko. Posta bidez bezeroei ailegatzeko produktua “Fedex” enpresarekin kontaktuan ipiniko gara prezioari begira, segurtasun gehiena



ematen digun enpresa delako. Hemen uzten dugu linka informazio gehiago eskuratzeko:
<https://spain.fedex.com/#/Main>

Erabiliko ditugun beste komunikazio kanalak sare sozialak izango dira. Instagram, Facebook eta Twitter profila sortu ditugu. Honekin saiatuko gara gazteei gure produktuei buruzko informazioa helaraztea. Horrez gain, ere erabiliko ditugu profilak enpresari buruzko berriak emateko.

Banaketari dagokionez, postaz bidez egingo ditugu produktuen banaketa eta bezeroenganako bidalketa, garraio-enpresen bitartez. Kontratatu dugun enpresa lana hau egiteko “Robertrans” izango da, enpresa honek gure industria nabetik (Zorrozauren dagoena) supermerkatuetara edo bezeroengana eramango ditu produktuak kantitate handitan. Hemen uzten dugu linka informazio gehiago jasotzeko:
<https://www.robertrans.es/es/>

Bezeroekin erabiliko dugun komunikazio kanala, web orrialde bat izango da. Web orrialde honen izena “Bioagradable” da. Gure enpresari buruzko informazioa zabaltzeko sortuko dugu webgunea. Atalak sortuko ditugu



prezioak zehazten, horrela bezeroak informazio erailgarria izateko. Horretaz gain, web orrialdean egongo da atal bat non bezeroak gurekin kontaktuan ipintzeko aukera izango dute, deitzeko telefono zenbaki bat eskainiko diegu, gurekin kontaktatzeko arazo bat izanda erabil dezaten. Hemen uzten dugu link: <https://ypareja.wixsite.com/bioagradable>

Alokatuko dugun biltegia bio-produktuak gordetzeko Zorrozaurren kokatuta dago, zehazki, *Calle Ribera De Deuston* egongo da. Hemen, alokatuko dugun biltegiaren informazio gehigarria agertzen da: <https://www.fotocasa.es/local-comercial/bilbao/calle-ribera-de-deusto-148817521?RowGrid=1&tti=3&opi=300>





Biltegi hau erabiliko dugu gure produktuak gordetzeko eta geroago dendara eramateko. Denda aurkitzerakoan, hainbat aukerak izan ditugu baina azkenean erabaki dugu 11 Paz kalean, Gurutzetan dagoen denda alokatzea, 36 metro karratuko denda bat da, zabalerari begira, leku onena dela pentsatzen dugu, kokapenari begira adin desberdineko bezeroak egon ahal direlako, azkenean, bizitegi-gune bat da.